

a u z o z a u z o a u z o z a u z o

herrera-bidebieta

bidebietako Gazte Txokoak, nahiz eta hilabete daraman irekita, egitarau zabala prestatu du udarako.

Batez ere, naturarekin harreman zuzena duten ekintzak antolatu dituzte arduradunek eta Gazte Txokoko partaide gazteek, berauek ere ekintza guztien antolamenduan hartzen baitute parte.

Orain artean gauza ugari egin diren arren, oraindik ere interesa duten 14-16 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete abuztuaren 8-tik 11-ra bitartean Urbasara egingo den irteeran.

Kobazuloak ezagutzeko espeleologia egingo da, bizikleta ibilaldiak antolatu dira, rappelatzen ikas-teko aukera izango dute eta Urbasa inguruko mendietara bisitak ere iragarri dituzte.

Irteera honen prezioa 2.500 pezeta da, kontutan izanik prezioan bidaia, janaria, kanpinga eta dendak sartzen direla.

Antolatzaileek mendian ibiltzeko oinetako egokiak eramatea gomen datzen dute, lo zakua ere bakoitzak eraman behar du eta baita ondo pasatzeko gogoia ere.

Taldea astelehenean aterako da Bidebietako Osakidetzaren Anbulategitik arratsaldeko hiruretan. Interesa duzuenok, dei lehen bait lehen 394890 telefonora.


Oraindik Bidebieta auzoko Gazte Txokoak ezagutzeko aukerarik izan ez baduzu, gogora ezazu oso gauza interesgarriak antolatzen dituztela gazte guztientzat, halaber lehen-



go astean izandako bideo emanaldiak, Oiartzun eta Zubietako zalditokitara egindako bisitak, Iruñea hiria ezagutzeko aukerak,

Kontxan zehar eginiko txalupa ibilaldiak etabar luze bat.


LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)



Gaiztarroko urputzia lorategi

Gaiztarro sarreran orain dela gutxi arte zegoen urputzia lorategi zirkularrean bihurtu da. Badirudi bertako burdinezko oreinek kontutan izan dutela munduan zehar dagoen lehortea eta erabaki dutela lore eta kolore berdez beteriko inguruan bizitzea.

Guri oso ideia egokia irudi zaigu eta donostiar guztiei bisitatzeko aukera zabaldtu nahi diegu.



NAUTILUS
TABERNA



- Elekrika Blend Sistema
- Makilaia Iraunkorra
- Azkazal Labratuak
- Betlien Tindaketa...

• Zedro plaza 2 Tfnoa.: 392051
• Nagusia 27 LASARTE Tfnoa.: 371891

Zure auzoan bertan duzu aukera

bidebieta
TINDATEGIA
Lehorreko garbiketa

Zumardi pasealekua, 32 % 39 41 86

Alberro
Gizonezko moda

Zumardi pasealekua, 20
Tfnoa.: 399078 DONOSTIA



KAFETEGIA
Zedro plaza 2
% 39 99 52